

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritar misto profesionalentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2025/01/28ko bileran honako erabakia hartu du:

Gaur egun, Gipuzkoa une kritikoa bizitzen ari da nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektoreei eusteari dagokionez. Industria jarduerak izan duen irismenak eta hedadurak, eta ekonomiaren azken serbituzioak, landa-ingurunea gero eta gehiago abandonatzea ekarri dute. Horren ondorioz, nekazaritza ustiategiaren kopurua jaitsi egin da oro har, landa eremuko biztanleria zahartu egin da eta lehen sektorean lan egiten duen biztanleria aktiboa murriztu egin da. Ustiategiak bertan behera uztearen arrazoia, neurri handi batean, lehen sektorearen jardueraren errentagarritasun eskasa da, batez ere atomizazio handiagatik eta gure lurraldearen orografiagatik, eta horrek eskalako ekonomiak lortzeko zailtasuna dakar. Era berean, egungo gizarteak, gero eta hiritarragoa denak, ez du lehen sektorea jardueraren erakargarritzat hartzen, ez ikuspegi ekonomikotik, ez pertsonaletik, landa eremuak abandonatuta daudelako eta ingurune horietan zerbitzu gutxi daudelako. Baserritarren zahartzeari, gainera, belaunaldien arteko errelebo falta handia gehitu behar diogu, horrek eragin zuzena baitu sektorearen iraunkortasunean.

Baserritar askorentzat, baserria beren lantokia ez ezik, beren etxea ere bada. Egiten duten jarduerak, enplegu bat baino gehiago, bizitzeko modu bat da, eta, horregatik, beren lurak uztea pentsaezina egiten zaie. Egoera horren aurrean, ustiatagia utzi nahi ez duten baserritar askok bigarren enplegu bat bilatzea erabakitzen dute, aurrera ateratzeko eta lurra bizirik mantentzeko aukera emango dien errenta gehigarri hori lortzeko.

Nekazaritza jardueraren dedikazio partzialak jarduerak hori garatzen den landa-ingurunea baldintzatzen du; lanordu falta dela eta eremu batzuk landu gabe uzten baitira, eta labore mota aldatu egiten baita, dedikazio gutxiago behar duten edo epe laburrean errentagarriagoak diren beste labore batzuk landuz. Gipuzkoan nagusi den testuinguru gabezia horren ondorioa da mantentzen diren ustiategiak ekoizpen txikiak eta oso kontsumo lokalekoak dituztela. Familiaren errenta nekazaritzakoa ez den beste jarduerak batean oinarritzen denez, lan hori egiten duen pertsonarentzat gehiegizko lan karga izateaz gain, baserritar horiek dira jarduerak, eta, azkenik, baserriak uztera errazen irits daitezkeenak. Horrek arriskuak ekar ditzake, bai elikagaiak hornitzeko segurtasunari dagokionez, bai ingurumenaren iraunkortasunari eta kontserbazioari dagokionez.

Gipuzkoako landa-, industria- eta zerbitzu-munduen arteko hurbiltasunak batetik bestera igarotzea erraztu du. Aurreko belaunaldiek bi zeregin horiek uztartzen jakin izan dute, dedikazio

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL VERDE

*Bases reguladoras y convocatoria de 2025 de las ayudas para baserritarras mixtos profesionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 28/01/2025, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Actualmente, Gipuzkoa está viviendo un momento crítico en lo que respecta al mantenimiento del sector agropecuario y forestal. El alcance y extensión que ha tenido la actividad industrial, y la más reciente servitización de la economía han derivado en un creciente abandono del medio rural, lo cual ha traído como consecuencia el descenso general del número de explotaciones agrarias, el envejecimiento de la población rural y la disminución de población activa dedicada al sector primario. El abandono de las explotaciones viene en gran medida explicado por la escasa rentabilidad de la actividad del sector primario, principalmente, debido a su elevada atomización y a la orografía de nuestro territorio, lo que conlleva la dificultad para obtener economías de escala. A su vez, la sociedad actual, crecientemente urbana, no percibe el sector primario como un sector de actividad atractivo, ni desde el punto de vista económico, ni personal, debido al abandono de las zonas rurales, y a la limitada disponibilidad de servicios en estos entornos. Al envejecimiento de los baserritarras debemos añadir además la importante falta de relevo generacional, que tiene un impacto directo sobre la sostenibilidad del sector.

Para muchos baserritarras el caserío no solo representa su lugar de trabajo, sino su hogar. La actividad desempeñada es más una forma de vida que propiamente un empleo, y por ello, dejar sus tierras se les hace impensable. Ante esta situación, muchos baserritarras que se resisten a abandonar su explotación optan por buscar un segundo empleo que les proporcione este suplemento de rentas que les permita sobrevivir y seguir manteniendo viva su tierra.

La dedicación parcial a la actividad agraria condiciona el medio rural en el que se desarrolla ésta, en cuanto a que deja zonas sin cultivar debido a la falta de horas de trabajo, y a que cambia el tipo de cultivo por otros que requieren de una menor dedicación de horas o por otros que resulten más rentables a corto plazo. La consecuencia de esta falta de este contexto, dominante en Gipuzkoa, es que las explotaciones que se mantienen cuentan con producciones pequeñas y de consumo muy local. El hecho de que la renta familiar se base en otra actividad distinta de la agrícola, además de la sobrecarga de un exceso de trabajo para la persona que lo desempeña, hacen que estos baserritarras sean los que más fácilmente pueden terminar abandonando la actividad y, finalmente, sus caseríos, con los consiguientes riesgos en los que dicho abandono puede derivar, tanto en lo que respecta a la seguridad en la provisión de alimentos, como a la sostenibilidad y conservación del medio ambiente.

La proximidad entre los mundos rural, industrial y de servicios en Gipuzkoa ha favorecido el tránsito entre éstos. Las generaciones anteriores han sabido conjugar ambas tareas con no

eta ahalegin handiarekin. Baina garai berriak datoz. Oraingo landa-gizartea aldatu egin da. Ez dago prest lantegian edo zerbitzuetan egiten duen lanaldia luzatzeko, baserrian neketsua eta gaizki ordaindua den jarduera bat mantentzeko behar diren lanak eginez. Oporrak, asteburuak eta familiaz, aisialdiaz eta kirolaz gozatzeko denbora eskatzen ditu. Landa eremuko gazteak ez dira hiriko eta globalizatutako kultura-korranteetatik kanpo bizi; aitzitik, horien parte aktibo dira.

Gaur egun, beste errealitate baten aurrean gaude eta horretara egokitu behar dugu. Horregatik, tresna berriak ezarri behar dira nekazaritza jarduerari eusteko eta natura-ingurunea eta giza kapitala kontserbatzeko. Horretarako, funtsezkoa da landa eremuan (bir)sartzea ekintzaile gazteak eta beren garapen pertsonala eta profesionala ingurune horretara (bir)bideratu nahi duten pertsonak. Ez dirudi helburu hori lor daitekeenik indarrean dagoen nekazaritza-politikaren tresnekin. Horregatik, egungo tresnen osagarri izango diren tresna berriak definitu eta diseinatu behar dira.

«Baserritar misto profesionalak» ekimenaren bidez, espermentatu egin nahi da, politika berriak probatuz, lurralde gisa dugun ondarean oinarrituta, baina errealitate berrira egokituz, eta gure kulturaren eta nortasunaren parte diren balioak orainera ekariz.

«Baserritar misto profesionalak» ekimenaren muina da lehen sektorean lan egin nahi duten pertsonen erraztasunak ematea bateragarri egiteko baserriko bizitza eta jarduera, batetik, eta egungo lanpostuan duten lana, bestetik (adibidez, enpresa, administrazio publikoa, unibertsitatea, institutuak, etab.), bi kasuetan lanaldi partzialean lan egin dezaten. Ustiategiak izango dituen ezaugarriak eta hedadura kontuan hartuta, jakina, dedikazio handiagoa edo txikiagoa beharko du, egungo jardueraren arabera. Baserritar misto profesionala, beraz, jarduera-aniztasuna duen pertsona bat izango da. Horren bidez, baserrian lehen sektoreko jarduerari eskainitako denbora eta industria-sektorean, hirugarren sektorean edo administrazio publikoan izan dezakeen dedikazioa konbinatuko dira.

Asmo horrekin sortu zen baserritar misto profesionala ekimena. Ekimen horren helburua da tresna garrantzitsua izatea ekintzaile gazteak sektorean sartzeko, bai eta dagoeneko instalatuta dauden nekazari eta abeltzainei beren jarduera areagotzen eta sendotzen laguntzeko ere.

Jarduera-aniztasuna lurraldeko estrategia gisa sustatuz, honako hauek lortu nahi dira:

– Bi norabideko trantsizio jasangarri eta iraunkor bat sortzea enpresatik baserrira, eta alderantziz, sektorearen produkzio-ahalmena handitzeko Gipuzkoan, eta, horrekin batera, landa-ingurunearen zaintza. Horrek herritar guztien ongizatean eragina izango duen gizarte- eta ingurumen-abantailak ekarriko baititu.

– Natura-ingurunearen zaintzari balioa ematea, gizarteak behar duen zerbitzua den aldetik, gizarte osoak onura ateratzen baitu, ustiategiaren errentagarritasun ekonomikoa handituz eta, ondorioz, baserritar gehiago etortzea eta ustiategi gehiago ezartzea sustatuz.

Onuradunei jarraitutasuna eta egonkortasuna emateko eta nekazaritza-ustiategiak beren jarduera sendotzeko eta egoera berrietara egokitzeko behar duten denbora izango dutela ziurtatzeko, sei urteko epea beteko duen laguntza-lerro bat aurreikusten da.

Testuinguru horretan, Diputatuen Kontseiluak, 2024ko urriaren 15ean egindako bileran, Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritar misto profesionalentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Hauei jarraiki, 20.000 euroko hasierako laguntza aurreikusten zen baserritarrentzat, baina hiru urte igaro ondoren, zenbateko bereko beste laguntza bat eskatzeko aukera izango dute

poca dedicación y esfuerzo. Pero llegan nuevos tiempos. La sociedad rural actual ha cambiado. No está dispuesta a prolongar su jornada laboral en la fábrica o en los servicios con el desempeño de las tareas requeridas para el mantenimiento de una actividad sacrificada y mal remunerada en el caserío. Reclama vacaciones, fines de semana y tiempo para disfrutar de la familia, del ocio, del deporte. La juventud del medio rural no vive al margen de las corrientes culturales urbanas y globalizadas, sino que forma parte activa de ellas.

En el momento actual nos encontramos ante una realidad a la que debemos readaptarnos. Es por ello necesario el establecimiento de nuevos instrumentos para el mantenimiento de la actividad agraria y la conservación del medio natural y del capital humano, para lo cual es esencial la (re)incorporación al medio rural de jóvenes emprendedores y de personas que quieran (re)orientar al mismo su desarrollo personal y profesional. Este objetivo no parece alcanzable con los instrumentos de la política agraria en vigor. Por ello, es necesario pensar en la definición y diseño de nuevos instrumentos complementarios a los ya existentes.

A través de la iniciativa «baserritarras mixtos profesionales» se busca experimentar, probando nuevas políticas, que estén fundamentadas en nuestro legado como territorio, pero adaptándolo a la nueva realidad, traduciendo al presente los valores que forman parte de nuestra cultura y de nuestra identidad.

La esencia de «baserritarras mixtos profesionales» es la de facilitar a las personas que quieran dedicarse al sector primario que puedan compatibilizar su vida y su actividad en el caserío con el trabajo que tienen en su puesto actual (p.e. empresa, administración pública, universidad, institutos, etc.), de manera que trabajen a tiempo parcial en ambos casos. En función de las características que vaya a tener la explotación y de la extensión de la misma, naturalmente, la dedicación que requerirá la explotación será mayor o menor, vis a vis la actividad actual. Un baserritarra mixto profesional, por lo tanto, será aquella persona que tiene una pluriactividad, a través de la cual se combine la dedicación a la actividad primaria en el caserío con aquella dedicación que puedan tener bien en el sector industrial, en el terciario o en la administración pública.

Con este propósito nace la iniciativa del baserritarra mixto profesional, que pretende ser un instrumento que pueda constituir un cauce importante para la incorporación de jóvenes emprendedores al sector, así como para apoyar a agricultores y ganaderos ya instalados a incrementar y consolidar su actividad.

A través del fomento de la pluriactividad como estrategia territorial se busca:

– Generar una transición bidireccional sostenible y sostenida de la empresa al caserío y viceversa, de manera que se incremente la capacidad productiva del sector en Gipuzkoa, y con ella, el cuidado del medio rural; con las consiguientes ventajas sociales y medioambientales, que repercutan en el bienestar de todos los ciudadanos.

– Poner en valor el cuidado del medio natural como servicio que necesita la sociedad, del que se beneficia el conjunto de la sociedad, incrementando la rentabilidad económica de las explotaciones, y consecuentemente, incentivando la llegada de más baserritarras y el establecimiento de más explotaciones.

Con el objetivo de proporcionar continuidad y estabilidad a los beneficiarios y asegurar que las explotaciones agrarias dispongan del tiempo necesario para consolidar su actividad y adaptarse a las nuevas circunstancias, se contempla un horizonte de ayudas que cubra un período de seis años.

En ese contexto, el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 15 de octubre de 2024, aprobó las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para baserritarras mixtos profesionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En base a las mismas, se contemplaba una ayuda inicial para los baserritarras de 20.000 euros, si bien transcurridos tres años tendrán la oportunidad de solicitar una nueva ayuda

deialdi gehigarri batean. Eskari berri hau oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzearen menpe egongo da, eta horri esker, laguntza aurrera eramaten jarraitu ahal izango da, betiere aurrerapenak erakutsi dituzten eta aurreko laguntzak behar bezala erabili dituzten onuradunentzat.

Dirulaguntza hauek Europako araudian ezarritako «minimis» erregimenaren barruan daude:

– Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO), nekazaritza jardueran ari diren edo arituko diren pertsona fisikoen kasuan.

– Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2023ko abenduaren 15eko EBAO), jarduera ekonomikoren bat egiten duten entitate kontratatzaileen kasuan.

Hori horrela, Europako Batzordeak, 2024ko abenduaren 10eko 2024/3118 (EB) Erregelamendua onartuz, aldatu egin du 1408/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta ezarri du «estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen zenbateko osoa ez dela 50.000 eurotik gorakoa izango hiru urteko edozein alditan».

Beraz, aldaketa horrek aukera ematen du diruz lagun daitekeen zenbatekoa hasieran aurreikusitako 20.000 eurotik 30.000 eurora igotzeko, eta horrek pizgarri handiagoa ematen du, eta horixe da lortu nahi dena.

Bestalde, lehen aipatutako oinarrietan ikusi da kontzeptu batzuen jatorrizko idazketak zalantzak sor ditzakeela interpretazioan, eta hori argitzea komeni dela, behar bezala aplikatu ahal izateko.

Beraz, lehen sektorean aritu nahi duten pertsonen pizgarri handiagoa lortzeko eta ezarritako baldintzak argiago interpretatzeko, beharrezkoa da aipatutako aldaketak jasotzen dituzten oinarri arautzaile berriak onartzea, baita dagokion laguntza-deialdia ere.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea.

Dirulaguntza ildo hau 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago. Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2024 Foru Arauaren arabera eguneratu ahal izango da.

Horie horrela, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritar misto profesionalentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, erabaki honen I eranskinean jaso direnak.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntza horien 2025eko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jaso dena.

*Hirugarren.* 2025eko deialdirako 300.000,00 euroko gastua baimentzea, kontu sail honen kargura:

1.0910.100.470.00.11.2025: 300.000,00 euro.

por ese mismo importe en una convocatoria adicional. Esta nueva solicitud estará condicionada al cumplimiento de las condiciones establecidas en las bases reguladoras, lo que permitirá asegurar que el apoyo continúe solo para aquellos que hayan demostrado avances y un uso adecuado de las ayudas anteriores.

Estas ayudas están acogidas al régimen de minimis establecido en la normativa comunitaria:

– Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola (DOUE de 24 de diciembre de 2013), para las ayudas a personas físicas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria.

– Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión de 13 de diciembre de 2023 relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (DOUE de 15 de diciembre de 2023), para las ayudas a entidades contratantes que ejerzan una actividad económica.

Siendo esto así, la Comisión Europea mediante la aprobación del Reglamento (UE) 2024/3118, de 10 de diciembre de 2024 ha modificado el Reglamento (UE) n.º 1408/2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola, estableciendo que «el importe total de las ayudas de minimis concedidas por un Estado miembro a una única empresa no excederá de 50.000 euros durante cualquier período de tres años».

Por tanto, esta modificación permite aumentar la cantidad subvencionable de 20.000 € prevista inicialmente, a un importe de 30.000 €, lo cual, consituye un mayor incentivo, que es lo que se pretenden.

Por otra parte, en las bases anteriormente citadas, se ha detectado la existencia de conceptos cuya redacción original podría generar dudas en su interpretación, y se ha considerado conveniente clarificar para para su correcta aplicación.

Por tanto, con el objetivo de lograr un mayor incentivo aquellas personas que quieran dedicarse al sector primario, así como una interpretación más clara de los requisitos establecidos, es necesario la aprobación de unas nuevas bases reguladoras que incorporen las modificaciones señaladas, así como la correspondiente convocatoria de ayudas.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES), sin perjuicio de su actualización conforme a la Norma Foral 4/2024, de 20 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2025.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para baserritarras mixtos profesionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se acompañan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2025 de dichas ayudas; se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 300.000,00 euros, para hacer frente a la convocatoria del año 2025, con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

1.0910.100.470.00.11.2025: 300.000,00 euros.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arauzaile hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustetzeko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 30a.—Ione Artola Latierro, idazkari teknikoa. (736)

I ERANSKINA

*Baserritar misto profesionalentzako laguntzak arautzeko oinarriak.*

1. *Laguntzen xedea.*

Laguntza horien helburua da lehen sektorean jardun nahi duten pertsonen baserrian egiten duten lana eta beste sektore batzuetan besteren kontura egiten duten lana bateragarri egiten laguntzea, bi sektore horietan lanaldi partzialean lan egin dezaten, eta enpresatik baserriarako trantsizio jasangarri eta iraunkor bat sortzea, sektorearen ekoizpen ahalmena handitzeko Gipuzkoan, eta, horrekin batera, landa ingurunearen zaintza; horrek herritar guztien ongizatean eragina duten gizarte eta ingurumen abantailak baitakartza.

2. *Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradun izango dira Gipuzkoan nekazaritza jardueran aritzen diren edo arituko diren pertsona fisikoak eta honako baldintza espezifiko hauek betetzen dituzten enpresak.

2.1. Nekazaritza jardueran ari diren edo arituko diren pertsona fisikoen kasuan, laguntza eskatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

\* 18 urte beteta izatea eta 55 urte gainditu gabe izatea BMP programan sartzeko eskaera berrietarako deialdiaren urtean.

\* Besteren konturako langilea izatea helburu sozializat nekazaritza jarduera ez duen enpresa batean. Bazkide langileen kasuan, 10 bazkide edo gehiago dituzten entitateetako bazkide langileek ere laguntza eskuratu ahal izango dute betiere entitateak helburu sozializat nekazaritza jarduera ez badu. Lan-harremana mota hauetakoa izango da:

– Hitzarmenaren arabera, lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea, gutxienez 18 hilabeteko antzinatasuna duena deialdia argitaratzen den unean, helburu sozializat nekazaritza jarduera ez duen enpresa batekin. Seme-alabak zaintzeko edo odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senideak zaintzeko lanaldi osoko murrizketa-kasuak onartuko dira.

– Helburu sozializat nekazaritza jarduera ez duen enpresa batean sartuko bada, lan-kontratu mugagabe berri bat, lanaldia % 50ekoa, hitzarmenaren arabera. Kasu horietan, onuradunaren jarduera nagusia ezingo da nekazaritza izan.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 30 de enero de 2025.—La secretaria técnica, Ione Artola Latierro. (736)

ANEXO I

*Bases reguladoras de las ayudas para baserritarras mixtos profesionales.*

1. *Objeto de las ayudas.*

Facilitar a las personas que quieran dedicarse al sector primario que puedan compatibilizar su actividad en el caserío con el trabajo por cuenta ajena en otros sectores de manera que trabajen a tiempo parcial en ambos sectores y generar una transición sostenible y sostenida de la empresa al caserío, de manera que se incremente la capacidad productiva del sector en Gipuzkoa, y con ella, el cuidado del medio rural; con las consiguientes ventajas sociales y medioambientales, que repercutan en el bienestar de todos los ciudadanos.

2. *Personas beneficiarias.*

Serán beneficiarias de estas ayudas las personas físicas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria en Gipuzkoa y las empresas que cumplan los siguientes requisitos específicos:

2.1. En caso de personas físicas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria, para poder solicitar la ayuda deberán cumplir los siguientes requisitos:

\* Tener cumplidos los 18 años y no haber superado los 55 en el año de la convocatoria de ayudas para nuevas solicitudes de inclusión en el programa BMP.

\* Ser persona trabajadora por cuenta ajena en una empresa que no tenga como objeto social la actividad agraria. En el caso de socios trabajadores sólo tendrán acceso a la ayuda las personas que sean socias trabajadoras de entidades con 10 o más personas socias que no tenga como objeto social la actividad agraria. La relación laboral será de alguno de los siguientes tipos:

– Contrato laboral indefinido a jornada completa –según convenio–, con una antigüedad mínima de 18 meses en el momento de publicarse la convocatoria, con una empresa que no tenga como objeto social la actividad agraria. Se admitirán los casos de reducción de la jornada completa por cuidado de hijos o por el cuidado de familiares hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

– En caso de que vaya a incorporarse a una empresa que no tenga como objeto social la actividad agraria, un nuevo contrato laboral indefinido que deberá ser del 50 % de la jornada laboral según convenio. En estos casos la persona beneficiaria no podrá ser agricultora a título principal (ATP).

Nekazari batek ATP izaera du, hau da, bere ogibide nagusia nekazaritza da, baldin eta urteko errenta osoaren % 50 gutxienez bere ustiattegian egiten duen nekazaritza jardueratik lortzen badu, eta urteko lan denbora osoaren % 50 edo gehiago ustiategiarekin lotura zuzena duten jardueretarako ematen badu, nekazaritzako lan unitateen arabera.

Baldintza hori kalkulatzeko, pertsona bakoitzeko lan-denbora, guztira, ezin izango da urtean 2.700 orduetik gorakoa izan. Ustiategian egindako nekazaritza jardueraz bestelako lanorduak urtean 1.350 baino gehiago badira, ez dira inola ere ATP gisa hartuko, nekazaritzako lan-unitateen kopurua edozein dela ere.

Nekazaritza jardueratzat hartzen dira nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako produktuak lortzeko egin beharreko lanak, produktu horien eraldaketa, ontziraketa eta salmenta barne hartuta, baldin eta ustiategiaren barruan egiten badira; era berean, halakotzat joko dira ustiategia mantentzeko egin beharreko lanak.

\* Nekazaritza jardueratik eratorritako baliaezintasun absolutuagatik edo baliaezintasun osoagatik pentsiorik ez jasotzea.

\* Bideragarritasun-plan bat aurkeztea, kudeaketa-zentro batek abalaturia, 6 urteren buruan 13.300 euro/urteko marjina garbia eta 0,5 euroko NLU lortzea aurreikusten duena. NLUak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren indarrean dagoen Aginduaren arabera kalkulatu dira. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietan nekazaritzako lan-unitateak (NLU) zehazteko laboreen marjina gordinak eta modulu objektiboak finkatzen dira. Marjina garbia bideragarritasun-planaren azterketa ekonomikotik abiatuta kalkulatu da.

\* Dagozkion lanbide gaitasuna eta trebezia edukitzea, ekoizpen baliabideen erabilera zuzena bermatzeko. Gutxienez 100 eskola ordutan nekazaritza arloko prestakuntzan jarraituko ikastaroak izatea egiaztatu beharko da eskaera egiteko unean edo laguntza ematen denetik 36 hilabeteko epean. Pertsonak gaituta daudela edo eskatzen den gaitasun profesionala dutela ulertuko da honako hauek egiaztatzen badituzte: nekazaritza adarreko unibertsitate titulua, erdi edo goi mailako heziketa ziklo bat, 2. edo 3. mailako profesionaltasun ziurtagiri bat, edo nekazaritza adarreko ikastaro trinko bat.

\* Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko lehen instalaziorako laguntzarik jaso ez izatea.

Langile bakoitzak bere lan eremuan izan ditzakeen mugei kalterik egin gabe, Herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileek abenduaren 26ko 53/1984 Legean, herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzkoan, ezarritako bateraezintasun-araubidea bete beharko dute.

2.2. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten entitate kontratazaileen kasuan:

- Nekazaritza jarduera objektu sozial gisa ez izatea.
- Bi alderdi interesdunek (enpresak eta nekazariak) sinatutako aurreakordio bat aurkeztea, oinarri arautzaileetan ezarritako betekizunekin eta konpromisoekin ados daudela adieraziz.

Kasu guztietan, pertsona edo erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Herri-administrazioetako langileentzat ezarritakoaren kalterik gabe, ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan administrazio publikoak, ez eta haien administrazio instituzionala eta haien mende dauden eta nortasun juridiko propioa duten gainerako erakunde instrumentalak ere.

Se entiende como ATP aquel agricultor o agricultora profesional que obtiene anualmente, al menos, el 50 % de su renta total de la actividad agraria ejercida en su explotación y cuyo tiempo de trabajo dedicado anualmente a actividades directamente relacionadas con la explotación, conforme a las unidades de trabajo agrario, sea igual o superior a la mitad de su tiempo de trabajo total.

El tiempo de trabajo total por persona no podrá superar las 2.700 horas anuales a efectos de cálculo de esta condición; en ningún caso, en el supuesto de que el número de horas de trabajo distintas a la actividad agraria ejercida en la explotación supere las 1.350 horas anuales, se tendrá la consideración de ATP, independientemente del número de unidades de trabajo agrario.

Se entiende por actividades agrarias el conjunto de trabajos que se requiere para la obtención de productos agrícolas, ganaderos y forestales, incluida su transformación, envasado y comercialización, siempre y cuando estas últimas se ejerzan dentro de una explotación, así como los trabajos que se requieran para el mantenimiento de una explotación.

\* No percibir pensión de invalidez absoluta o de invalidez total proveniente de la actividad agraria.

\* Presentar un plan de viabilidad avalado por un centro de gestión que contemple alcanzar 13.300 euros de margen neto anual y 0,5 UTA al cabo de 6 años. Las UTAs se calcularán de acuerdo con la vigente Orden de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco por la que se fijan los márgenes brutos de los diversos cultivos y los módulos objetivos para la determinación de las Unidades de Trabajo Agrario (UTA) en las explotaciones agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El margen neto se calculará a partir del análisis económico del plan de viabilidad.

\* Poseer la capacidad y competencias profesionales adecuadas que garanticen el correcto empleo de los medios productivos acreditando la asistencia a cursos de formación continua en la rama agraria de una duración mínima de 100 horas lectivas. Se deberá acreditar la capacitación y competencia en el momento de la solicitud o en un plazo de 36 meses desde la concesión de la ayuda. Aquellas personas que acrediten haber superado titulación universitaria de la rama agraria, un ciclo formativo de grado medio o superior; un certificado de profesionalidad de nivel 2 o 3; o un curso intensivo de la rama agraria, se considerará que tienen la capacitación o competencia profesional exigida.

\* No haber recibido ayudas a la primera instalación en el sector agroganadero.

Sin perjuicio de las limitaciones a las que pueda estar cada trabajador en su respectivo ámbito laboral, el personal al servicio de las administraciones públicas, estará sujeto al régimen de incompatibilidades establecido en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

2.2. En caso de entidades contratantes que ejerzan una actividad económica:

- No tener como objeto social la actividad agraria.
- Presentar un preacuerdo firmado por ambas partes interesadas (empresa y persona agricultora) mostrando su acuerdo con los requisitos y compromisos establecidos en las bases reguladoras.

En todos los casos la persona o entidad beneficiaria deberá encontrarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Sin perjuicio de lo establecido para el personal al servicio de las administraciones públicas, quedan excluidas como beneficiarias de estas ayudas, las administraciones públicas, así como, su respectiva administración institucional y demás entes instrumentales con personalidad jurídica propia, dependientes de las mismas.

### 3. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

3.1.1. Nekazaritzan diharduten edo arituko diren pertsona fisikoen kasuan:

– Nekazaritza sektorean Baserritar Misto Profesional (BMP) gisa sartzea, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategi bateko titular edo bazkide langile gisa jarduera aniztasuna duena (nekazaritza jarduera eta beste enpresa batean besteren konturako lana uztartzen dituen % 50eko lanaldiarekin, hitzarmenaren arabera).

3.1.2. Erakunde kontratatzaileen kasuan:

– Laguntza honen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eta laguntza jasotzeko interesa duten langileen kasuan, lanaldi osoaren % 50eko lanaldi-murrizketa ematea, lan-hitzarmenaren arabera.

– Laguntza honen eskatzaile bat enpresan sartzea, % 50eko lanaldi murriztuarekin.

Enpresetara % 50eko lanaldi murriztuarekin sartzen diren langile berrien kasuan, enpresa eta deialdi bakoitzeko langile berri bat soilik lagunduko da diruz.

Kasu guztietan, lanaldi murrizketak bateragarria izan behar du nekazaritza jarduerarekin.

### 4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Eskaerak eta horiekin batera aurkeztu beharreko gainerako agiriak honela aurkeztu ahal izango dira:

– Nekazaritza ustiategiaren kokapenari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan, sinadura elektronikoa edo pasahitz operatiboaren bidez, horretarako dagoen berariazko inprimakia erabilita.

– Internet bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bitartez (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), dirulaguntzen atarira sartuz sinadura elektronikoa edo pasahitz operatiboaren bidez, horretarako eskuragarri dagoen berariazko formularioa erabilita. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkeztuko dira 23/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera.

Deialdian finkatuko dira eskaerak eta horiekin batera aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko epea.

### 5. Zuzenketa.

Eskaeran edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio daturik ez badago, edo akatsak badituzte edo osatu gabe badaude, entitate eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan dioena aplikatuz, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

### 6. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak elkarren arteko lehiako prozeduraren bidez emango dira, dauden kreditu mugen barruan, eta ofizioz hasiko da organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdi publikoaren bidez.

Aurrekontu ekitaldi baten barruan laguntzen deialdia egiten bada, bai eskaera berriak jasotzeko, baita emandako lehen laguntzaren ordainketatik hiru urte bete dituztenen baserritarrentzako ere, deialdi ezberdinetan onartuko dira.

### 3. Actuaciones objeto de subvención.

Las actuaciones subvencionables consistirán en:

3.1.1. En caso de personas físicas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria:

– Incorporarse al sector agrario como un Baserritarra Mixto Profesional (BMP), es decir, con pluriactividad (que compagine la actividad agraria con el trabajo por cuenta ajena en otra empresa con una jornada laboral del 50 % –según convenio–) como titular o socio trabajador de una explotación agraria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3.1.2. En caso de entidades contratantes:

– En el caso de personas en plantilla que cumplen con los requisitos para ser beneficiarias de esta ayuda y que estén interesadas en recibirla, la concesión de la reducción de jornada a un 50 % de la jornada completa según convenio laboral.

– La incorporación de una persona solicitante de esta ayuda a la empresa con una jornada reducida del 50 %.

En el caso de nuevas incorporaciones a empresas con jornada reducida del 50 %, únicamente se subvencionará una nueva incorporación por empresa y convocatoria.

En todos los casos la reducción de jornada deberá ser compatible con la actividad agraria.

### 4. Forma y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes, junto con el resto de la documentación que deba acompañarlas, podrán presentarse:

– En la Oficina Comarcal Agraria correspondiente a la ubicación de la explotación agraria y mediante la firma electrónica o la clave operativa, utilizando el formulario específico disponible a estos efectos.

– Vía internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

El plazo de presentación de solicitudes y la documentación que deba acompañarlas se fijarán en la convocatoria.

### 5. Subsanción.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

### 6. Procedimiento de concesión.

La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia competitiva, dentro de los límites del crédito existente, y se iniciará de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En caso de que dentro del mismo ejercicio presupuestario se convoquen ayudas tanto para la recepción de nuevas solicitudes, como para baserritarras que ya hayan cumplido tres años desde el pago de la primera ayuda concedida, se aprobarán convocatorias diferenciadas.

### 7. Balorazio irizpideak.

Laguntzak espedienteek lortutako puntuazioaren arabera emango dira, balorazio irizpide hauen arabera, guztira 100 punturen gainean (BMP diren pertsona fisikoen zein enpresa kontratatzaileen eskaerak jasotzen dituzten espedienteak batera baloratuko dira), honako hauen arabera:

– Nekazaritza jardueran ari den edo arituko den pertsonaren adina (eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean):

- a. 31 urte baino gutxiago: 85 puntu.
- b. 31 urte edo gehiago eta 41 urte baino gutxiago: 50 puntu.
- c. 41 urte edo gehiago eta 56 urte baino gutxiago: 20 puntu.

– Emakumea izatea: 15 puntu.

Berdinketa gertatuz gero, adin txikieneko pertsonak lehentsiko dira.

### 8. Finantzaketa.

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzetarako baliabide ekonomikoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira.

### 9. Prozedura antolatu eta izapidetzeko eskumena duten organoak.

Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuak izapidetuko du dirulaguntza hauek emateko prozedura.

Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdi publikoaren bidez.

Aurkeztutako eskaerak oinarri arautzaile hauetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako hautaketa-irizpideen arabera aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuko buruak eta zerbitzu horretako bi teknikarik osatua.

Batzorde horrek aholkularitza eskatu ahal izango du, baita bere zeregina betetzeko beharrezkoak diren txosten teknikoak egitea ere, eta Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuari helaraziko dio laguntza eskaerak onartzeko edo, hala badagokio, ezesteko proposamena.

### 10. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoak jarraian deskribatzen direnak izango dira, eta espedienteak baloratzeko ordenaren arabera emango dira, aurrekontua agortu arte.

a) Nekazaritza jardueran ari diren edo arituko diren pertsonentzat:

– Hasierako emakida: 30.000 €.

– Bigarren emakida, lehenengo ordainketatik 3 urte igaro ondoren, dagokion berariazko deialdian onuradunak izanez gero: 30.000 €.

b) Enpresa kontratatzaileentzat, 30.000 € hasierako emakidan.

### 11. Laguntza emateko ebazpena.

Ebaluazio Batzordearen ebazpen proposamena ikusita, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak ebartziko du prozedura, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, laguntza eskatzeko epearen azken egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, pertsona eta erakunde interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez.

### 7. Criterios de valoración.

La concesión de las ayudas se realizará en función de la puntuación alcanzada por los expedientes, según los siguientes criterios de valoración sobre un total de 100 puntos (los expedientes que contengan solicitudes tanto de las personas físicas BMP como de las empresas contratantes se valorarán conjuntamente), en función de:

– La edad de la persona que ejerza o vaya a ejercer la actividad agraria (a fecha fin del plazo de la solicitud):

- a. Menos de 31 años: 85 puntos.
- b. Mayor o igual de 31 años y menor 41 años: 50 puntos.
- c. Mayor o igual de 41 años y menor 56 años: 20 puntos.

– Ser mujer: 15 puntos.

En caso de empate, se priorizarán las personas de menor edad.

### 8. Financiación.

Los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en estas bases procederán de los créditos presupuestarios del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

### 9. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.

La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Servicio de Ayudas y Registros del Departamento de Equilibrio Territorial Verde.

El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas conforme a los criterios de selección establecidos en las presentes bases reguladoras y demás normativa de aplicación, se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por el jefe o jefa del Servicio de Ayudas y Registros y dos técnicos/as de dicho Servicio.

Dicha Comisión, que podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para realizar su cometido, elevará al diputado o diputada foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde la propuesta de concesión o desestimación, en su caso de las solicitudes de ayuda.

### 10. Importe de las ayudas.

Los importes de las ayudas serán los descritos a continuación y se concederán por orden de valoración de los expedientes hasta agotar el presupuesto.

a) Para las personas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria:

– Concesión inicial: 30.000 €.

– Segunda concesión, una vez transcurridos 3 años desde el primer pago, en caso de resultar beneficiarias en la convocatoria específica correspondiente: 30.000 €.

b) Para las empresas contratantes 30.000 € en la concesión inicial.

### 11. Resolución de concesión.

A la vista de la propuesta de resolución de la Comisión Evaluadora, la resolución del procedimiento corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde, conforme a lo dispuesto en el artículo 9 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

